

Bizkaia

Getxo

Santa Ana

### HARINO PANADERA



Enpresa honek ogia egin eta merkatutzen du. Beheko solairua eta lehendabizikoa ditu; Getxoko bizitegi-aldean dago, Maximo Agirre, Ibaibide eta Arellano kaleen artean. Antonio Araluze arkitektoak proiektatu zuen 1933 eta 1939 bitartean.

Oinplano angeluzuzena du. Presentzia nabarmena du Maximo Agirre eta Arellano kaleak elkartzen diren gunean. Eraikin arrazionalista da, eragin espresionistak dituena eta hormigoi armatuz egin. Eraikin honek atal bereziak ditu; programa funtzionalaren beharrei erantzunez, bolumen-fluidotasun eta -zatatze argia dauzka, baina konposizio-eta estetika-batasunari eutsiz betiere. Kanpo-akaberen materialak homogeenak dira, baina bistako adreilu gorria nagusitzen da. Balkoi-karelak, berriz, bistako adreiluzkoak dira, eta sekzio zirkularreko metalezko hodiekin egindako baranda dute gailurrean. Jatorrizko higiezin hainbat aldaketa egin zituzten 1986an eta 1987an Manuel Pazos eta Ricardo del Campo arkitektoek.

Obra errekonozitua da, eta Docomomo (Documentation and Conservation of buildings of the Modern Movement) Fundazioak jaso du. Egin zuten garairako oso aurreratua da. Estilo arrazionalista du, eta Getxon gelditzen diren industria-adibide bakanetakoa da; horrek are erakarriago egiten du. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak monumentu izendatu zuen higiezin hau 2007an. Orain dela gutxi eginiko erreformek bere ondare-balorea galarazi diote.

Empresa dedicada a la fabricación y comercialización del pan. Se trata de un edificio de planta baja y piso, situado en la zona residencial de Getxo, entre las calles Máximo Aguirre, Ibaibide y Arellano. Obra del arquitecto Antonio de Araluze, fue realizado entre 1933 y 1939.

De planta rectangular, cuenta con una gran presencia en el cruce de las calles Máximo Aguirre y Arellano. Se trata de un edificio racionalista con influencias expresionistas, realizado en hormigón armado. El edificio presenta partes diferenciadas con una clara fluidez y fragmentación volumétrica que responden a las necesidades del programa funcional, pero siempre manteniendo una unidad compositiva y estética. Los materiales del acabado exterior se presentan homogéneos, siendo dominante la presencia del ladrillo cara vista rojo. Los antepechos de los balcones se resuelven en ladrillo cara vista, coronados con barandilla de tubo metálico de sección circular. El inmueble original fue objeto de modificaciones entre los años 1986 y 1987, de la mano de los arquitectos Manuel Pazos y Ricardo del Campo.

Es una obra reconocida por la fundación Docomomo (Documentation and Conservation of buildings of the Modern Movement), que destaca por ser muy adelantada para su época. De estilo racionalista, es uno de los pocos ejemplos industriales que se han conservado en Getxo, lo que la hace doblemente atractiva. Este inmueble fue declarado Monumento en 2007 por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco/ Kultur Saila; no obstante, una reciente reforma le ha hecho perder sus valores patrimoniales.